




# ikastolak



## TANTIRUMAIRU IKASTOLA LESAKA



Tantirumairu Ikastolara etorri ziren irakurleak, 5. eta 6. mailako ikasleekin batera.

# Irakurleak ikastolan, Liburuaren Egunean

JOAN ZEN ASTELEHENEAN LIBURUAREN EGUNA IZAN ZEN ETA, XIII. IRAKURKETA SAIOAK EGIN GENITUEN IKASTOLAN

📷 Testua eta argazkia Tantirumairu Ikastola

**H**erriko zerbitzuetako 6 langile etorri ziren ikastolara Liburuaren Egunearekin bat eginez. Bakoitza ikasgela batera joan zen eta han bilduak zeuden adin desberdinetako ikasleei liburu bat irakurri zien. Saio hauek hagitx gustukoak ditugu, txikiak ginelarik hasi ginen horrela ipuinak entzuten eta urtero egiten dira.

Aurten, 5. eta 6. mailako ikasleok izan dugu saioa antolatzeko ardura eta hori dela eta Lupe irakaslearengana jo dugu gehiago jakin nahi genu-

lako saio hauei buruz. Berak, hau antola-tzeko ideia noiz eta nola sortu zen azaldu digu: "2006an jarri genituen martxan honelako saioak; Irakurzaletasunari buruzko ikastaro batean hartu genuen ideia. Helburua zen ikastolako atea zabaltzea eta haurrak ohartaraztea helduek ere gustuko dutela irakurtzea".

"Lehenengo urtean hiru hilero egin genituen", azaldu digu Lupek. "Baina gero pentsatu genuen bertze ekintza motak ere egin behar genituela eta horrela antolatzen ditugu adibidez

liburu trukaketak, idazleak geletara etortzea...".

Lupek erran bezala, urte guzti hauetan zehar irakurle aunitz pasa dira gure ikastolatik. Sei izaten dira aldiro etortzen direnak eta lotzen dituen ezaugarri bat izaten dute. Adibidez, irakasleak ez diren eskolako langileak, eskolaz kanpoko ekintzen irakasleak, amatxi-aitatxiak, ikastolako ikasle ohiak, osaba-izebak, musikariak, dendariak, kirolariak, artezkaritza batzordeko gurasoak, kazetariak, komunikabidetako esatariak...

"Behin, 2008an, Xan izeneko iparraldeko kazetari bat etorri zen", gogoratu du Lupek "eta umea zeneko bere ipuin gustukoena irakurri nahi izan zuen: Otsoño eta Xuriko, hain zuzen. Liburutegi guztietan begiratu zuen eta ez zuen aurkitu. Azkenean, Nafar Gobernuako artxiboetan aurkitu zuen eta fotokopiak egin zituen ikastolan irakurri ahal izateko".

Ondoren galdetu diogu Luperi ea sumatu den haurrek gehiago irakurtzen dutela saio hauen eraginez: "Ez da erraza hori jakitea, urtean zehar bertze ekintza batzuk ere egiten dugulako. Baina bai uste dugu guzti horiekin bultzatzen dugula irakurtzeko gogoia. Urtero irakurtzen dituzten liburuak arrakasta izaten dute: ikasleak liburu horiek eskatzen dituzte eta eskutik eskura ibiltzen dira ikastolatik".

Liburu trukaketak ere egin dituzte azken urte hauetan, eta ikasleak gustura irakurtzen dituzte beste ikasleentzako liburuak. "Idazle eta irudigileak ere ekartzen ditugu ikastolara". JUUL kanpainak indar handia duela azpimarratu du Lupek. "Ekimenaren inguruan irakurketari buruzko iritzi trukaketak, jakin mina... sortzen dira". ●

### INKESTA



1. Nola konbentzitu zaituzte honat etortzeko?
2. Nola bizitu duzu esperientzia hau?
3. Nola ikusi dituzte haurrak zuek ipuina kontatu bitartean?
4. Zure hutez saio honekin haurrei irakurzaletasuna piztu zaie?
5. Gustatzen zaizu irakurtzea? Ze liburu mota?

**AIHNOA GONZALEZ**  
Estetizista

1. Galdetu zidaten ea irakurtzera etorri nahi nuen eta bi aldiz pentsatu gabe, gustura etorriko nintzela esan nien.

2. Hagitz esperientzia polita izan da, errepikatzeko modukoa.

3. Adi adi egon dira denbora guztian, txikiak harrotuagoak egon dira baino denok gustura.

4. Nere ustez bai. Garrantzikoa da bere jende mota desberdina irakurtzen ikustea, irakasleetatik aparte.

5. Bai, nobela erromantikoak gustatzen zaizkit.

**MERTXE REKONDO**  
Herriko okina

1. Erran zidaten esperientzia polita izan zela, gainera niri aunitz gustatzen zait irakurtzea.

2. Urduri xamar nintzen hasieran baina hagitz gustura egon naiz.

3. Primeran egon dira, arreta handia jarri dute, batez ere handienak.

4. Horrela espero dut.


5. Bai, aunitz gustatzen zait irakurtzea; batez ere abenturazko nobelak irakurtzen ditut.

#### LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Irakurketa Saioren zein edizio ospatu zuten Leskako ikastolakoek?
2. Zein mailatako ikasleek antolatu dute aurten?
3. Zein literatura mota du gustuko Mertxe Rekondok? Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbide, a, telefono zenbakia eta ikastolaren izenarekin batera.

#### IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Uxue Sainz (Ibaialde Ikastola).  
OINEZ BALEA (2): Iñaki Uriarte (Jaso Ikastola).



fundación osasuna

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitortu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.